

BERDIN SAREA

BERDINSAREAN SARTZEKO ESKAERA IZAPIDETZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1. **Atxikipen-agiria.** Udal eskatzaileak (Alkatetzak) bete eta sinatu behar duen dokumentuaren ereduaren erantzen da, osoko bilkurak onartua, pdf eta Word formatuetan, aldaketa garrantzitsuak sartu ahal izateko.
2. **Betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak:**
 - 2.1. **Berdintasun Planaren** justifikazioari dagokionez, osoko bilkuran horren onarpena bidaltzea. Planak indarrean egon behar du, edo osoko bilkurak eguneratu eta berretsi behar du.
 - 2.2. **Teknikariei** buruzko justifikazioari dagokionez, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, non esplizituki jasoko baita teknikariak esperientzia eta/edo prestakuntza baduela eta nor izango litzatekeen.

Hauek dira balorazio-irizpideak:

- A. Berdintasunaren arloko **prestakuntzaren** justifikazioa: unibertsitateek edo berdintasun-erakundeek eman behar dute prestakuntza, eta 180 ordu baino gehiago iraun behar du. Dagokion titulazioa erantsi behar da.
- B. Berdintasunaren arloko **lan-esperientziaren** justifikazioa: esperientziak barne hartu behar du berdintasunerako plan edo programa bat sustatzeko erantzukizuna, mainstreaminga eta ekintza espezifikokoak ezartzea errazten duten estrategiak kudeatzea. Esperientzia jasoz gero, ziurtagirian honako hau jasoko litzateke: "... teknikariak garatzen dituen funtzioen artean dago emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko programak bultzatzea eta diseinatzea eta aholkularitza teknikoaren ematea, mainstreaminga eta ekintza espezifikokoak ezartzea errazten duten estrategiak kudeatuz".
- C. **Zerbitzu egonkorra** delako justifikazioa. Ziurtagiriak erakundearekin duen kontratu-harremana aipa dezake, lanpostua, lanaldia eta iraupena aipatuz. Udaleko LPZ-an Berdintasun Teknikariaren lanpostua agertzen denaren ziurtagiria.
- D. **Dedikazioaren justifikazioa:** ziurtagiriak aipatu behar du teknikariak dedikazioa duela berdintasun-plana eta -programa bultzatzeko.

BERDIN SAREA

Lanaldi osoko dedikaziorik izan ezean, udalerraren tamainaren edo bestelako inguruabar berezien arabera justifikatzen duen agiria.

- 2.3. **Aurrekontuari dagokionez**, aurtengo urtean berdintasun-programetara bideratutako zenbatekoa aipatu behar da, **eta** udaleko aurrekontuan suposatzen duen portzentaia edo ehunekoa.
 - 2.4. **Parte hartzeko bideei dagokienez**, adierazi zeintzuk (organoak, egiturak), parte hartzen duten erakunde eta pertsona motak, eta horien izaera eta helburuak
3. Berdintasunaren eremuan udalak izandako ibilbidearen **memoria** labur bat, bertan udalerriak berdintasunaren arloan eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka dituen baliabide eta zerbitzuen berri emanaz.
 4. Udalak tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategia garatzearen, emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiei modu aktiboan aurre egitearen eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borroka antolatzearen aldeko apustu irmoa eta zalantzarik gabea egin duela egiaztatzen duen dokumentazio guztia ematea. (Protokoloak, Plan Sektorialak, Ordenantza, ...)